

EUSKARAREN JAKITE MAILA AREAGOTZEA ETA ERABILERA SUSTATZEA HELBURU DUTEN DIRULAGUNTZAK 2023

1.- GETXOTARREN HIZKUNTZA GAITASUNA AREAGOTZEA HELBURU DUTEN LAGUNTZAK

- ⇒ **EUSKARA IKASTEKO LAGUNTZAK GETXOTARRENTZAT BALIABIDE EKONOMIKOEN ARABERA**
- ⇒ **EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK: 6-15 URTE ARTEKO UME ETA GAZTEEN EUSKALDUNTZEA**
- ⇒ **EUSKARA IKASTEKO LAGUNTZAK UDALEKO ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOETAKO LANGILEENTZAT ETA ZINEGOTZIENTZAT**

2.- EUSKARAREN ERABILERA ERRAZTEA HELBURU DUTEN LAGUNTZAK

- ⇒ **LAGUNTZAK GIDABAIMENA ATERATZEKO AZTERKETA EUSKARAZ EGITEKO**
- ⇒ **AISIALDIKO BEGIRALE ETA ZUZENDARI AGIRIA LORTZEKO EUSKARAZKO IKASTAROETARAKO LAGUNTZAK**
- ⇒ **LAGUNTZAK ERROTULUAK, TOLDOAK ETA IBILGAILU KOMERTZIALAK EUSKARAZ IPINTZEKO**

SARRERA

Getxoko Udaleko Tokiko Gobernu Batzak, 2019ko urtarrilean ESEP, Erabilera Sustatzeko Ekintza Plana onartu zuen. Getxoko ESEPeK datozen urteotako hizkuntza plangintza gidatu nahi du eta euskararen erabilera areagotzea du xede. ESEPeK hiru helburu estrategiko batzen ditu bere baitan: euskararen jabeakuntza, erabilera eta elikadura, hau da, hizkuntza aberastasuna handitzeko behar diren izapideak eta eguneroko esparru guztiak ukitzen ditu: irakaskuntza, administrazioa, lan-mundua, hedabideak, kirola eta aisia, kultura, publizitatea... eta baita helduen euskalduntzea ere.

Deialdi hau, ESEP plan estrategikoaren ekintzen artean jasota dago eta Getxoko gizartean euskararen erabilera soziala sustatzea du helburu. Horregatik azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege orokorreakin eta Getxoko Udaleko Osoko Bilkurak Dirulaguntzak Ematea Araupetzeko, 2021eko abenduaren 23ko Osoko Bilkuran onartutako ordenantzarekin bat etorrita (2022ko martxoaren 16ko 52 zenbakia duen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratua), deialdi hau plazaratzen da.

Dirulaguntza hauen oinarri orokorrak aipatutako dirulaguntzen udal ordenantzak dira.

1. HELBURUAK

Eskuartean ditugun laguntzek bi helburu estrategiko dituzte:

1. Euskararen jakite maila sustatzea eta euskara belaunaldiz belaunaldi eta etenik gabe geroratzea.
2. Euskararen erabilera sustatzea: belaunaldi berrietako euskaldunentzat euskara erabilera-eremu berezi eta garrantzizkoetarako atsegina izan dadin lortu nahi dugu.

2. PROZEDURA ETA DIRULAGUNTZA ILDOAK

Deialdi honen bidez abantuko diren dirulaguntzak lehiaketa bidez esleituko dira, beti ere ezarritako kreditu mugak errespetatuz. Dirulaguntza ildoak hauek izango dira (ildo bakoitzari buruzko xehetasun gehiago aurrerago).

2.1.- Euskara ikasteko eta euskara sustatzeko helburuarekin, Udalak **gizabanakoei** laguntza hauek emango dizkie:

ILDOA	KREDITUA
1. ildoak: Euskara ikasteko dirulaguntzak getxotarrentzat baliabide ekonomikoen arabera.	31.277,5.-
2. ildoak: Euskara ikasteko dirulaguntzak: 6-15 urte arteko ume eta gazteentzat.	15.800.-
3. ildoak: Euskara ikasteko dirulaguntzak udaleko eta bere autonomiadun erakundeetako langileentzat eta zinegotzientzat.	1.000.-
4. ildoak: Dirulaguntzak gazteentzat gida-baimena lortzeko azterketa euskaraz egiteagatik.	4.000.-
5. ildoak: Aisialdiko begirale eta zuzendari agiria lortzeko euskarazko ikastaroetarako dirulaguntzak.	1.000.-
GUZTIRA	53.077,5.-

Bost atal hauetarako agertzen den diru-kopurua gainontzeko ataletako dirulaguntzetarako erabili ahal izango da beti eta, gizabanakoei laguntzak emateko jarritako kreditua gainditzen ez den bitartean.

2.2.- Euskara sustatzeko helburuarekin, Udalak **enpresei** laguntza hauek emango dizkie:

6. ildoak: Dirulaguntzak errotuluak, olanak eta ibilgailu komertzialak euskaraz ipintzeko.	7.350.-
GUZTIRA	7.350.-

Gizabanakoentzako dirulaguntzen partidako kreditua enpresentzako dirulaguntzetarako erabili ahal izango da eta alderantziz, aurrekontu-partidan kreditu nahikoa dagoen bitartean. Horretarako, aldez aurretik, baimendutako gastua bi partiden artean birbanatzeko Tokiko Gobernu Batzako akordioa egon beharko da.

1., 2., 3., 4. eta 5. ildoko dirulaguntza Getxoko Udaleko 2023ko aurrekontuen 4800000 partidaren barruan kontabilizatu eta ordainduko dira.

6. ildoko laguntzak Getxoko Udaleko 2023ko aurrekontuen 4700000 partidaren barruan kontabilizatu eta ordainduko dira.

3. IKASTAROAK

3.1. EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK (1., 2. eta 3. ildoak)

2022-2023 ikasturtean egindako ikastaroetarako eskaerak baino ez dira onartuko (7. puntuari agertzen diren 2022ko oinarrien aplikazioari buruzko salbuespenekin). Beraz, ez dira onartuko ez aurreko ikasturteetan egindako ikastaroetarako laguntza eskaerak ezta datozen ikasturteetan egingo direnetarako ere.

* **2022-2023 ikasturtea:** 2022ko urriaren 1ean hasi eta 2023ko irailaren 30ean (biak barne) amaitzen da.

Dirulaguntza eskaera bat egin behar da eskatzaileak egin duen ikastaro bakoitzeko.

Ikastaroen ezaugarriak:

- Lehen ildoko ikastaroak, HABEk homologatutako euskaltegien egin beharko dira. Ikastaroak ere, HABEk homologatutakoak izango dira. *Ikus Kultura sailburuaren 2003ko abuztuaren 6ko Aginduak arautzen duen euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentroen Erregistroa. Ikus: <https://www.habe.euskadi.eus/euskaltegiak/webhabe00-edukiak/eu/>*
- Bigarren ildoko laguntzen kasuan euskaltegi homologatuetan burututakoak edo umeentzako euskaltegien burututakoak izan beharko dira.
- Barnetegien kasuan ez dira egonaldiko gastuak ordainduko.
- Ez dira diruz lagunduko Hizkuntza Eskoletan egindako ikastaroak.
- Ez dira diruz lagunduko mailak egiaztatzeko deialdietan izena emateagatik ordaintzen diren tasak eta ezta agiriak luzatzeagatik ordaintzen direnak ere.

3.2. GIDABAIMENA LORTZEKO AZTERKETA EUSKARAZ EGITEAGATIK DIRULAGUNTZAK GAZTEENTZAT (4. ildoak)

Azterketa teorikoa **2022an edo 2023an** egindakoa beharko du izan eta horri dagozkion ordainagirik **2022koak edo 2023koak** beharko dute izan.

3.3. AISIALDIKO BEGIRALE ETA ZUZENDARI AGIRIA LORTZEKO EUSKARAZKO IKASTAROETARAKO DIRULAGUNTZAK (5. ildoak)

Jaurlaritzaren agiri ofizialak **2021-2022 edo 2022-2023** ikasturteetan lortutakoa beharko du izan; ez da onartuko aurreko ikasturteetan lortutako agiriengatik eskaerarik. Ondorioz, aurkeztutako **fakturak ere 2021ekoak, 2022koak edo 2023koak** izan ahalko dira.

3.4. DIRULAGUNTZAK ERROTULUAK, OLANAK ETA IBILGAILU KOMERTZIALAK EUSKARAZ IPINTZEKO (6. ildoak)

Errotulua, olana edo ibilgailu komertziala euskaraz jarri dela ziurtatzeko **fakturek 2022ko edo 2023ko data** beharko dute izan.

4. BALDINTZAK ETA ZENBATEKOAK

Euskara ikasteko dirulaguntzei dagokienean (1., 2. eta 3. ildoak), ondoren azaltzen diren bete beharreko baldintzak (**baldintza espezifikoek gain bete beharrekoak**) eta zenbatekoak onartzen dira:

Aurrez aurreko eta jardun biko ikastaroetan	Autoikaskuntza ikastaroetan
Gutxienez, euskaltegiak emandako ikastordu guztien %75era joan dela egiaztatu.	Mintza-saioetan izandako asistentzia orduekin, gutxienez, ikastaroaren ordu teoriko guztien % 7,5era iritsi.

	Getxoko euskaltegietan egindako ikastaroak	Getxon ez dauden euskaltegietan egindako ikastaroak
Diru-laguntzaren zenbatekoa	Udalaren dirulaguntza ez da, inolaz ere, matrikula gisa, ordaintzen denaren %80 baino gehiago izango. Getxoko euskaltegiak ondorengoak dira: <ul style="list-style-type: none">• Getxoko Udal Euskaltegia.• Lauaxeta AEK Euskaltegia.• J.A. Agirre Euskaltegia.• Areetako Ume Euskaltegia ume eta gazteen ikastaroetan.• Algortako Inguma Euskaltegia ume eta gazteen ikastaroetan.	Udalaren dirulaguntza ez da, inolaz ere, Getxoko Udal Euskaltegian ikastaro berarengatik, matrikula gisa, ordaintzen denaren %80 baino gehiago izango (eskola ordu bakoitzeko 0,88 euro): <ul style="list-style-type: none">• Aurrez aurreko ikastaroa: euskaltegiak emandako ikastorduak x 0,88 euro.• Jardun bikoetan: aurrez aurre euskaltegiak emandako orduak + autoikaskuntzako ordu teorikoak (bakarkakoak + mintza-saioak + tutoretzak) x 0,88 euro.• Autoikaskuntza: ordu teorikoak (bakarkakoak + mintza-saioak + tutoretzak) x 0,88 euro.
	Ume eta gazteen ikastaroetan (2. ildoak) Areetako Ume Euskaltegian eta Algortako Inguma Ume Euskaltegian ikastaro berarengatik ordaintzen dena hartuko da erreferentzia gisa.	Ume eta gazteen dirulaguntzetan (2. ildoak) ez da lagunduko autoikaskuntza ikastarorik.

5. DIRULAGUNTZA ESKAERA

Eskaera elektronikoki egin behar da, Getxoko Udaleko web gunean dagoen egoitza elektronikoa bidez: [Getxoko egoitza elektronikoa](#)

6. ORDAINKETA

Dirulaguntzetarako dagoen diru-kopurua banatuko da **erregistroaren hurrenkerari estuki loturik**, eta beti eta partidan diru nahikoa dagoen bitartean.

7. APLIKAZIOA

2022ko deialdiak jasotzen zuena aplikatuko zaie	2023ko deialdiak jasotzen duena aplikatuko zaie
Euskara ikasteko dirulaguntzak (1., 2. eta 3. ildoak): <ul style="list-style-type: none">• Dirulaguntza eskaera 2022ko urtarrilaren 1etik irailaren 30era bitartean (barne) erregistratuta badago.• Eta ikastaroa 2022ko irailaren 30a baino lehen amaitu bada. Gidabaimena, aisialdiko begirale-zuzendari agiria eta errotulaziorako dirulaguntzak (4., 5. eta 6. ildoak): <ul style="list-style-type: none">• Dirulaguntza eskaera, 2022ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean (barne) erregistratuta badago.	Euskara ikasteko dirulaguntzak (1., 2. eta 3. ildoak): <ul style="list-style-type: none">• Dirulaguntza eskaera, BAOn argitaratu eta biharamunetik hasita 2023ko urriaren 9ra arte (barne) erregistratuta badago.• Eta ikastaroa 2022ko urriaren 1etik-2023ko irailaren 30era arte egindakoa bada. Gidabaimena, aisialdiko begirale-zuzendari agiria eta errotulaziorako dirulaguntzak (4., 5. eta 6. ildoak): <ul style="list-style-type: none">• Dirulaguntza eskaera, BAOn argitaratu eta biharamunetik hasita 2023ko azaroaren 30era arte (barne) erregistratuta badago.

8. DIRULAGUNTZEN OSAGARRITASUNA

Dirulaguntza hauen 1 eta 3 ildoak Eusko Jaurlaritzak edo beste erakunderen batek ematen dituen dirulaguntzen osagarri dira. Hala eta guztiz ere, onuradunak jasotzen dituen dirulaguntzak matrikularen kostua baino handiagoak izatea ekiditeko neurri hauek hartzen dira:

1.- Getxoko Udalari 1. ildoko dirulaguntza eskatzen diotenek HABEren (edo beste enpresa edo instituzioren) dirulaguntzak ere eskatu beharko dituzte **DERRIGOR, baldin eta**, eskatzaileek HABEren laguntza hauek eskatzeko baldintzak betetzen badituzte.

2.- HABEk (edo beste edozein enpresa edo instituziok) emandako dirulaguntzak osatuko ditu Getxoko Udalak 4. puntuari jasotzen diren kopuruetara iritsi arte. HABEren dirulaguntzaren zenbatekoa Getxoko Udalak 4. puntuari onartutako kopuruetara iristen bada, espedientea itxiztat emango da.

3.- Kasuren batean, onuradunak jasotako dirulaguntzak matrikularen kostua baino handiagoak izango balira, onuradunak Udalaren kontu korrontean sartu beharko luke dagokion kopurua.

9. EPEAK

DIRULAGUNTZA	EPEA
<u>1., 2. eta 3. ildoak</u> <ul style="list-style-type: none">• Euskara ikasteko dirulaguntzak getxotarrentzat baliabide ekonomikoen arabera.• Euskara ikasteko dirulaguntzak 6-15 urte arteko ume eta gazteei.• Euskara ikasteko dirulaguntzak udal langile eta zinegotziei.	Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdiaren laburpena argitaratu eta biharamunetik hasita 2023ko urriaren 9ra arte (barne).
<u>4., 5. eta 6. ildoak</u> <ul style="list-style-type: none">• Dirulaguntzak gazteentzat, gidabaimena lortzeko azterketa euskaraz egiteagatik.• Aisialdiko begirale eta zuzendari agiria lortzeko euskarazko ikastaroetarako dirulaguntzak.• Dirulaguntzak errotuluak, olanak eta ibilgailu komertzialak euskaraz ipintzeko.	Bizkaiko Aldizkari Ofizialean deialdiaren laburpena argitaratu eta biharamunetik hasita 2023ko azaroaren 30era arte (barne).

10. EBAZPENEA

Dirulaguntza hauek emateko proposamena organo instruktoreak egingo du eta behin dirulaguntzetarako organo kolegiatuaren aldeko txostena izanda, ebazpena Alkateari edo Gobernu Batzordeari dagokio Alkatearen eskumenak eskuordetzeko dekretuak ezarritako zenbatekoaren arabera. Organo instruktorea Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzua izango da.

Organon kolegiatua osatzen duten kideak, ekainaren 26ko 3235/2019 dekretuak jasotzen dituenak dira. Dekretu hau 2022ko apirilaren 11ko 1536/2022 dekretuak aldatu zuen.

11. ARGITALPENA

Deialdia Dirulaguntzei buruzko Datu Base Nazionalan erregistratuko da eta web orrian argitaratu.

Deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da dirulaguntzen basearen bitartez.

Deialdiaren ebazpena ere Diru-laguntzei buruzko Datu Base Nazionalean argitaratuko da, Halaber, Udalaren web gunean ere argitaratuko da

12. HARTZAILEAREN EKIMENEZ EGINDAKO ITZULKETA

1. Borondatezko itzulketa onuradunak Administrazioaren inolako errekerimendurik gabe egiten duena da.
2. 887/2006 Errege Dekretuaren 90. artikulua xedatutakoaren arabera, onuradunak bere ekimenez itzuli ahal izango du Udalak emandako dirulaguntza, Udalak eskatu gabe.
3. Horretarako, lehenengo, onuradunak berak Udalaren dirulaguntza itzultzeko eskabidea egingo du, zergatiaren berri emanez. Onuradunak berak eskatuta dirulaguntza itzultzeko, ordainketa-gutun/errezibo bat erabiliko da. Ordainketa-gutun/errezibo hori Udalak luzatuko dio onuradunari.

13. DATUEN BABESA

Indarrean dagoen datu babesen gaineko araudiaren arabera, jakinarazten da eskarian agertzen diren datuak "Euskara Sustatzeko Dirulaguntzak" izeneko tratamenduan sartuko direla. Tratamendu honen arduraduna Getxoko Udala da eta helburua, Getxoko udalerrian euskara sustatzeko dirulaguntzak kudeatzea du.

Titularrak eskubidea du sartzeko eta bere datuak zuzentzeko, ezabatzeko eta transferitzeko, baita bere datuen trataera mugatzeko edo ukatzeko ere; horretarako, Udalaren posta helbidera edo datuak@getxo.eus helbidera idatzi behar du, bere nortasuna egiaztatzen duen agiri bat gehituta, edo Udalaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen izapide elektronikoa hasiz. Informazio gehiagorako: www.getxo.eus/datuak.

14. INTEROPERABILITATEA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 28. artikulua ezartzen du interesdunek eskubidea dutela administrazio eskatzailearen esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak ez aurkezteko.

Interesduna aurka agertzen ez bada, Getxoko Udalean gai honetako eskumena duen zerbitzuak/sailak dokumentu horiek kontsultatu edo bildu ahal izango ditu. Interesduna aurka agertu balitz, eskatutako dokumentazioa berak aurkeztu beharko luke.

Datu pertsonalen trataera interes publikoaren izenean edo Getxoko Udalari berari emandako botere publikoaren izenean egindako eginkizun bat betetzeko legitimatuta dago, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Getxoko Udalari dagokio dirulaguntza honetara sartzeko eta mantentzeko ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea. Horretarako Administrazio Publiko ezberdinetatik bitarteko telematikoen bidez jasotako informazioa aintzat hartuko du.

Arrazoi teknikoak direla-eta, interoperabilitatea ezinezkoa bada, Getxoko Udalak dokumentuak aurkezteko eskatu ahal izango du.

OHARRAK

- ⇒ Neurri orokor modura ez da onartuko euskaltegiara joan ezina adierazten duen ziurtagiri edo antzekorik (Medikuen baja ziurtagiriak, laneko ziurtagiriak...)
- ⇒ Euskaltegira joateko ezintasun larrien eta luzeen kasuetan (txosten mediko ofiziala aurkeztu behar), kasu berezi berezietan edo deialdi honetan jasota ez dauden salbuespeneko kasuetan, Euskara Zinegotziak erabakiak hartzeko ahalmena izango du

- ⇒ Matrikula erregistroaren hurrenkerari estuki jarraituz abonatu da, aurrekontu-partidan diru nahikoa dagoen bitartean
- ⇒ Euskara Zerbitzuak edozein momentutan dokumentazio osagarria eskatzeko aukera izango du.

1. ildoa: EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK GETXOTARRENTZAT BALIABIDE EKONOMIKOEN ARABERA

1. HARTZAILEAK

Baliabide ekonomiko nahikorik ez dutela frogatzen duten eta Getxon erroldatuta dauden pertsonak.

2. IKASTAROAK

- Diruz lagunduko direnak **3.1 PUNTUAN** jasotakoak dira.
- Ikastaroak, HABEk homologatutako euskaltegietan egin beharko dira. Ikus 2003ko abuztuaren 6ko Kultura Kontseilariaren Agindua; euskaltegien eta autoikasketa zentroen erregistroari buruzkoa: <https://www.habe.euskadi.eus/euskaltegiak/webhabe00-edukiak/eu/>
- Ezin izango dituzte dirulaguntza hauek jaso, matrikularen kostua ordaintzeko euren enpresen, erakundeen eta abarren dirulaguntza jasotzen duten pertsonak.
- Barnetegien kasuan ez dira egonaldiko gastuak ordainduko.

3. BALDINTZAK

3.1. Baldintza ekonomikoak

Eskatzailearen diru-sarrerara likidoak (zerga oinarri orokorra + aurrezkien zerga-oinarria) ezin izango dute beheko taulan ageri diren kopuruak baino altuagoak izan (IKUS gehieneko diru-sarreraren taula).

3.2. Asistentzia

- Aurrez aurreko eta jardun biko ikastaroetan: eskatzaileak, gutxienez, euskaltegiak emandako **ikastordu guztien %75era** joan dela egiaztatu behar du.
- Auto-ikaskuntza bidezko ikastaroetan: **mintza-saioetan** izandako asistentzia orduekin, gutxienez, **ikastaroaren ordu teoriko guztien % 7,5era iritsi**.

4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Dirulaguntza eskaera bat egin behar da egindako ikastaro bakoitzeko.

00.- Eskaera izeneko inprimakia beteta. Ikus tutoriala helbide honetan: [EUSKARA IKASTEAREN - YouTube](#)

01.- Euskaltegiko matrikularen ordainagiria. Besterik adierazi ezean, Euskara Zerbitzuak ofizioz eskatuko du. Eskatzaileak datuak eskatzearen aurka egiten badu, berak erantsi beharko du agiri hau.

02.- Asistentzia ziurtagiria. Besterik adierazi ezean, Euskara Zerbitzuak ofizioz eskatuko du. Eskatzaileak datuak eskatzearen aurka egiten badu, berak erantsi beharko du ziurtagiri hau.

03 eta 04.- ziurtagiriak. Gizarte Segurantzaren, Foru Ogasunarekin eta Getxoko Udalarekin zorrak ez izatearen ziurtagiriak. Besterik adierazi ezean, Euskara Zerbitzuak ofizioz eskatuko du. Eskatzaileak datuak eskatzearen aurka egiten badu, berak erantsi beharko du ziurtagiri hau.

05.- 2022ko Errenta Aitorpenaren fotokopia edo egin behar ez izanaren ziurtagiria. Besterik adierazi ezean, Euskara Zerbitzuak ofizioz eskatuko du. Eskatzaileak datuak eskatzearen aurka egiten badu, berak erantsi beharko du aitortpena.

GEHIENEO DIRU-SARRERAK

Eskatzailearen errenta aitopenean ageri diren diru-sarrera likidoek (zerga-oinarri orokorra + aurrezkien zerga-oinarria) ezin izango dituzte gainditu ondorengo taulan ageri diren kopuruak:

FAMILIAN ZENBAT KIDE	GEHIENEO DIRU-SARRERA LIKIDOAK
1	41.580 €
2	53.654 €
3 edo 3tik gora	59.053 €

Eskatzailearen sarrerak egiaztatzeko **2022ko ekitaldiko errenta aitopena** begiratuko da.

OHAR GARRANTZITSUAK

- Eskatzailearen 2022ko errenta aitopeneko diru sarrera likidoak begiratuko dira.
- Eskatzaileak errenta aitopena egin beharrik ez badu, Udalak ofizioz konprobatuko du edo horretara ukatuko balitz, interesatuak ziurtatu beharko du egiaztagiaren bitartez.
- Benetako egoera ekonomikoa okerrera aldatu izan balitz egiaztatu beharko da eskabidea egiterakoan.
- Bekak esleitzerakoan, Oinarrizko Errenta jasotzen duten familiak lehenetsiko dira.

2. ildoa: EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK 6-15 URTE ARTEKO UME ETA GAZTEENTZAT

1. HARTZAILEAK

- Eskatzailea eta laguntza jasoko duena, adingabekoaren legezko erantzulea izango da eta biak, errenta aitortzean, elkarrekin agertu beharko dira.
- Dirulaguntzaren helburua, euskalduntze ikastaroetan diharduten Getxoko gazteen eta umeen (6tik 15 urtera bitartean, **2007tik 2017ra bitartean jaiotakoak**, biak barne) matrikula ordaintzen laguntzea da.

2. IKASTAROAK

Diruz lagunduko direnak:

- Ume eta gazteentzat bereziki pentsatutako euskalduntze ikastaroak.
- Euskaltegi homologatuetan burututakoak edo umeentzako euskaltegietan burututakoak.

EZ dira diruz lagunduko:

- Klase partikularrak.
- Eskola orduetan burutzen diren ikastaroak.
- Autoikaskuntza ikastaroak.
- Familia barnetegiak.
- Desplazamenduak.
- 45 ordu baino gutxiagoko ikastaroak.

3. BALDINTZAK

3.1. Baldintza ekonomikoak

Eskatzailearen diru-sarrera likidoek (zerga oinarri orokorra + aurrezkien zerga-oinarria) ezin izango dute beheko taulan ageri diren kopuruak baino altuagoak izan (IKUS gehieneko diru-sarreraren taula).

3.2. Asistentzia

Gutxienez, ikastaroaren ordu teoriko guztien % 75eko asistentzia.

4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

00.- Eskaera izeneko inprimakia beteta. Ikus tutoriala helbide honetan: [EUSKARA IKASTEIA - YouTube](#)

01.- Euskaltegiko matrikularen ordainagiria. Besterik adierazi ezean, Euskara Zerbitzuak ofizioz eskatuko du. Eskatzaileak datuak eskatzearen aurka egiten badu, berak erantsi beharko du agiri hau.

02.- Asistentzia ziurtagiria. Besterik adierazi ezean, Euskara Zerbitzuak ofizioz eskatuko du. Eskatzaileak datuak eskatzearen aurka egiten badu, berak erantsi beharko du ziurtagiri hau.

03 eta 04.- ziurtagiriak. Gizarte Segurantzza, Foru Ogasunarekin eta Getxoko Udalarekin zorrik ez izatearen ziurtagiriak. Besterik adierazi ezean, Euskara Zerbitzuak ofizioz eskatuko du. Eskatzaileak datuak eskatzearen aurka egiten badu, berak erantsi beharko du ziurtagiri hau.

05.- Ume edo gaztearen ordezkari legalaren 2022ko errenta aitortpena edo egin behar ez izanaren ziurtagiria. Besterik adierazi ezean, Euskara Zerbitzuak ofizioz eskatuko du. Eskatzaileak datuak eskatzearen aurka egiten badu, berak erantsi beharko du aitortpena.

GEHIENEO DIRU-SARRERAK

Eskatzailearen errenta aitortenean ageri diren diru-sarrera likidoek (zerga-oinarri orokorra + aurrezkien zerga-oinarria) ezin izango dituzte gainditu ondorengo taulan ageri diren kopuruak:

FAMILIAN ZENBAT KIDE	GEHIENEO DIRU-SARRERA LIKIDOAK
1	41.580 €
2	53.654 €
3 edo 3tik gora	59.053 €

Eskatzailearen eta bizikideen sarrerak egiaztatzeko **2022ko ekitaldiko errenta aitortena** begiratuko da.

OHAR GARRANTZITSUAK

- Eskatzailearen eta bizikideen 2022ko errenta aitorteneko diru sarrera likidoak begiratuko dira.
- Eskatzaileak 2022ko errenta aitortena egin beharrik izan ez badu, Udalak ofizioz konprobatuko du edo horretara ukatuko balitz, eskatzaileak ziurtatu beharko du egiaztariaren bitartez.
- Benetako egoera ekonomikoa okerrera aldatu izan balitz egiaztatu beharko da eskabidea egiterakoan.
- Bekak esleitzerakoan, Oinarrizko Errenta jasotzen duten familiak lehenetsiko dira.

3. ildo: EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK UDALEKO ETA BERE AUTONOMIADUN ERAKUNDEETAKO LANGILEENTZAT ETA ZINEGOTZIENTZAT

1. HARTZAILEAK

- Euskara ikastera doazen Getxoko Udaleko langileak eta Udaleko autonomiadun erakundeetako langileak.
- Getxoko Udaleko zinegotziak.

2. IKASTAROAK

- Diruz lagunduko direnak HABEk homologatutako ikastaroak izango dira (ikus 3.1. puntua).
- Ikastaroak, HABEk homologatutako euskaltegietan egin beharko dira. Ikus Kultura sailburuaren 2003ko abuztuaren 6ko Aginduak arautzen duen euskaltegien eta euskararen autoikaskuntzarako zentroen Erregistroa. Ikus: <https://www.habe.euskadi.eus/euskaltegiak/webhabe00-edukiak/eu/>
- Barnetegien kasuan ez dira egonaldiko gastuak ordainduko.

3. BALDINTZAK

Asistentzia

- Ikastaro presentzialetan edo jardun bikoetan: eskatzaileak, gutxienez, euskaltegian hartutako eskola-ordu guztien **%75era** joan dela egiaztatu behar du.
- Auto-ikaskuntza bidezko ikastaroetan: **Mintza-saioetan** izandako asistentzia orduekin, gutxienez, **ikastaroaren ordu teoriko guztien % 7,5era** iritsi.

4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Dirulaguntza eskaera bat egin behar da egindako ikastaro bakoitzeko.

00.- Eskaera izeneko inprimakia beteta. Ikus tutorial helbide honetan: [EUSKARA IKASTEIA - YouTube](#)

01.- Euskaltegiko matrikularen ordainagiria. Besterik adierazi ezean, Euskara Zerbitzuak ofizioz eskatuko du. Eskatzaileak datuak eskatzearen aurka egiten badu, berak erantsi beharko du agiri hau.

02.- Asistentzia ziurtagiria. Besterik adierazi ezean, Euskara Zerbitzuak ofizioz eskatuko du. Eskatzaileak datuak eskatzearen aurka egiten badu, berak erantsi beharko du ziurtagiri hau.

03 eta 04.- ziurtagiriak. Gizarte Segurantza, Foru Ogasunarekin eta Getxoko Udalarekin zorrik ez izatearen ziurtagiriak. Besterik adierazi ezean, Euskara Zerbitzuak ofizioz eskatuko du. Eskatzaileak datuak eskatzearen aurka egiten badu, berak erantsi beharko du ziurtagiri hau.

4. ildoak: 17-23 URTE BITARTEKO GETXOTARREI GIDABAIMENA ATERATZEKO AZTERKETA EUSKARAZ EGITEAGATIK DIRULAGUNTZAK EMATEA

1.- HARTZAILEAK

Eskatzaileak, Getxon erroldatutako 17 eta 23 urte bitarteko gazteak izango dira (**2000-2006 bitartean jaiotakoak**, biak barne), gidabaimena ateratzeko azterketa teorikoa euskaraz egin dutenak.

2.- BETE BEHARREKO BALDINTZAK

2.1.- Eskatzaileak gidabaimena ateratzeko azterketa euskaraz egin duela ziurtatu beharko du.

2.2.- *Gidabaimena euskaraz* kanpainan parte hartu duen Getxoko autoeskolaren batean atera beharko da, gidabaimena (ikus zerrenda udal webgunean).

2.3.- Eskaria aurkeztu orduko, matrikula ordainduta eduki beharko da.

2.4.- Dirulaguntza eskatu ahal izateko azterketa eginda izan behar da. Azterketa teorikoa 2022an edo 2023an egindakoa beharko du izan eta horri dagozkion ordainagiriak 2022koak edo 2023koak beharko dute izan.

2.5.- Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira beste edozein erakunde publikok zein pribatuk ematen dituenekin, baina dirulaguntza guztien artean ezin izango da jaso matrikularen zenbatekoa baino gehiago.

3. DIRULAGUNTZA KOPURUAK

Matrikulak lagunduko dira baina ez tasak; laguntzen esparrua hau izango da:

- Azterketa teorikoa euskaraz egiteagatik eskatzaileak, **gehienez, 100 euro jasoko ditu.**
- Azterketa teorikoa euskaraz egiteagatik gazteek jasotzen duten dirulaguntza behin bakarrik jaso ahal izango dute.

4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

00.- Eskaera izeneko inprimakia beteta. Ikus tutorial helbide honetan: [EUSKARA IKASTEIA - YouTube](#)

01.- Faktura(k): Gidabaimena ateratzeko, teorikoan edota praktikoan, eskatzaileak izandako **gastuen jatorrizko ordainagiriak** (matrikula, azterketa tasak eta abar).

02 eta 03.- ziurtagiriak. Gizarte Segurantzza, Foru Ogasunarekin eta Getxoko Udalarekin zorrik ez izatearen ziurtagiriak Besterik adierazi ezean, Euskara Zerbitzuak ofizioz eskatuko du. Eskatzaileak datuak eskatzearen aurka egiten badu, berak erantsi beharko du ziurtagiri hau.

04.- Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren ziurtagiria, non esaten den gidabaimena ateratzeko azterketa euskaraz egin dela. Besterik adierazi ezean, Euskara Zerbitzuak ofizioz eskatuko du. Eskatzaileak datuak eskatzearen aurka egiten badu, berak erantsi beharko du ziurtagiri hau.

5. ildo: AISIALDIKO BEGIRALE ETA ZUZENDARI AGIRIA LORTZEKO EUSKARAZKO IKASTAROETARAKO DIRULAGUNTZAK

1. ZER DA DIRUZ LAGUNDUKO DENA

- Aisialdiko begirale agiria lortzeko ikastaroak.
- Aisialdiko zuzendari agiria lortzeko ikastaroak.

2. BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Getxon erroldatuta egotea.
- Ikastaroek euskaraz beharko dute izan eta eskatzaileak horretarako, hau da, ikastaroa jarraitu ahal izateko behar den euskara maila egokia beharko du izan.
- Eusko Jaurlaritzak homologatutako ikastegiak eman behar dituzte ikastaroak.

3. ORDAINKETA MODUA

- Baldintzak betetzen dituztenei ikastaroaren %50erainoko dirulaguntza emango zaie. Agiria lortzeko ikastaroak bi ikasturtetan egiten dituztenei ikastaro bakoitzarengatik %50erainoko laguntza emango zaie.
- Eskaerak aurkeztu ahal izango dira baina derrigor eskaera aurkezten duenean eskatzaileak ikastaroa amaitua behar du izan eta Jaurlaritzaren agiri ofiziala duela ziurtatu.
- Jaurlaritzaren agiri ofizialak 2021-2022 edo 2022-2023 ikasturteetan lortutakoa beharko du izan; ez da onartuko aurreko ikasturteetan (adibidez, 2020-2021 ikasturtean) lortutako agiriarengatik eskaerarik.

4. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

00.- Eskaera izeneko inprimakia beteta. Ikus tutoriala helbide honetan: [EUSKARA IKASTEIA - YouTube](#)

01.- Ikastaroko matrikularen ordainagiria(k).

02.- Agiri ofiziala: Eusko Jaurlaritzak luzatutako aisialdiko begirale edo zuzendari agiri ofizialaren kopia.

03.- Praktikak elkarte batean egin izana adierazten duen ziurtagiria.

04 eta 05.- Ziurtagiriak. Gizarte Segurantzza, Foru Ogasunarekin eta Getxoko Udalarekin zorrik ez izatearen ziurtagiriak. Besterik adierazi ezean, Euskara Zerbitzuak ofizioz eskatuko du. Eskatzaileak datuak eskatzearen aurka egiten badu, berak erantsi beharko du ziurtagiri hau.

6. ildo: ERROTULUAK, TOLDOAK ETA IBILGAILU KOMERTZIALAK EUSKARAZ IPINTZEKO DIRULAGUNTZAK

1. NORENTZAT IZANGO DIRA DIRULAGUNTZAK

- Merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduak.
- Herriko elkarteak.
- Publizitatearen gaineko udal zerga kobratzeko Zerga Ordenantza aplikatzen zaien bestelako erakundeak, ofizialak ez direnak.
- Orokorrean, establezimendua, egoitza edo denda kalean duten eta hizkuntza paisaian eragin nabarmena duten saltokiak, bulegoak eta bestelakoak, adibidez, lanbide liberalak, autonomoak. Kanpo geratzen dira finantza erakundeak, enpresa handietako ordezkariak-bulegoak eta antzekoak.

2. ZER DA DIRUZ LAGUNDUKO DENA

Dirulaguntza honako elementu hauek jaso ahalko dute:

- Errotuluak.
- Toldoak edo olanak.
- Ibilgailu komertzialen errotulazioa.
- Establezimenduetako pertsianen errotulazioa.
- Biniloak.
- Kaleko hizkuntza paisaian eragin nabarmena duten bestelako euskarriak.

3. ZENBATEKOAK DIRA DIRULAGUNTZAK

A) Euskara hutsean	Euskara hutsez idatzita dagoen errotulazio elementu bat jartzen duenari, horren %50 ordainduko zaio, gehienez, 360 euro .
B) Ele bietan	Ele bietan , idatzita dagoen errotulazio elementu bat jartzen duenari, horren %30 , gehienez 180 euro ordainduko zaio, beti eta elebitasun pizgarriaren irizpidea erabiltzen badu, hau da, euskarazko testuak, bai tamainagatik, tokiagatik edo azpimarratuta egoteagatik, lehentasunezko trataera badu .

4. KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

4.1. A) eta B) arauak kartel edo **elementu bakoitzari** aplikatuko zaizkio. Beraz, denda batek, errotulu bat baino gehiago jarri dezake, bere fatxadak hala eskatzen badu.

4.2. **Ezin izango** dute A) eta B) ataletan azaltzen den dirulaguntzarik lortu, **bakarrik izena, edo abizena**, edo izen-abizenak dituzten errotuluek.

4.3. **Ez du dirulaguntzarik jasoko txarto idatzita** edo oker gramatikarik duen errotulurik (honelakoak gerta ez daitezen irakurri ondoren datorren 4.4. puntua).

4.4.- Udalak bere Euskara Zerbitzuaren bitartez, **itzulpengintza eta aholkularitza zerbitzua eskainiko du doan**; eta horren berri emango die interesa dutenei.

5. AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

00.- Eskaera izeneko inprimakia beteta. Ikus tutorial helbide honetan: [EUSKARA IKASTE - YouTube](#)

01.- Faktura (Errotulua, olana, ibilgailu komertzial) euskaraz jarri dela ziurtatzeko.

02.- Argazkiak (aldatutako errotulu edo elementu(ar)en bi argazki).

03 eta 04.- ziurtagiriak. Gizarte Segurantzaren, Foru Ogasunarekin eta Getxoko Udalarekin zorrik ez izatearen ziurtagiriak. Besterik adierazi ezean,

Euskara Zerbitzuak ofizioz eskatuko du. Eskatzaileak datuak eskatzearen aurka egiten badu, berak erantsi beharko du ziurtagiri hau.

.

